

BIZI HITZA

Maiatza 2026

«Aitak ni bidali nauen bezala, nik zuek bidaltzen zaituztet». Eta haien gainera arnasa botaz, esan zien: «Hartzazue Espiritu Santua» (Jn 20, 21–22).

Jesus Magdalako Mariari Pazko goizean agertu ondoren, egun bereko ilunabarrean agertzen da Berpiztua lehen aldiz bere dizipuluen artean. Haien berehalako erreakzioa pozezkoa da, bakeak areagotua, Berak bakarrik eman dezakeen benetako bake hori (ik. Jn 14, 27): «Bakea zuei» (21. b). Poza eta bakea Espirituaren fruituak dira¹. Izan ere, Jesusek berehala esaten die: «Hartzazue Espiritu Santua» (22. b.).

«Aitak ni bidali nauen bezala, nik zuek bidaltzen zaituztet». Eta haien gainera arnasa botaz, esan zien: «Hartzazue Espiritu Santua».

Espiritu Santuak ez ditu ikasleak gaitzen bakarrik Aitak Jesusi eman zion eginkizun bererako, baizik eta gizatasun berri bezala birsortzen ditu. Berpiztuaren keinua haiengan putz eginez, Sortzaileak gizonaren sudurretan egin zuen berbera da, lurreko hautsez osatu zuena (ik. Gn 2, 7). Sorkuntza unibertso osoa eusten duen Aitaren maitasunaren lan etengabea den bezala, Espiritu Santuan Berpiztuak egindako sorkuntza berriak etengabe eusten du Erreinurako bidean dagoen gizateria.

Hil honetako Bizi-Hitzak gogorarazten digu aukera bikaina dugula gure bizitzan: beste Jesus batean bihurtzea. Eta hori horrela da gutako bakoitzarentzat pertsona bezala, baina are gehiago komunitate bezala. Jesusek pluralean hitz egiten die bere ikasleei; izan ere, elkaturik bakarrik, kide bakoitza bere berezitasunarekin, errepika dezakete Jesusen gorputz mistikoa.

«Aitak ni bidali nauen bezala, nik zuek bidaltzen zaituztet». Eta haien gainera arnasa botaz, esan zien: «Hartzazue Espiritu Santua».

Beraz, Semearengan seme-alabak garenez, Jesusen bokazio bera dugu: Aitaren baitatik aterata, Berarengana itzuli eta bere keinu eta hitzak munduan errepikatuzera deituak gaude, Espiritu Santuaren graziaz lagundurik. Dohain honi heltzen badiogu, guk ere Pablarekin baieztatu dezakegu: «ez naiz ni bizi, Kristo bizi da niregan» (Ga 2, 20).

Orduan, hitz honek Espiritu Santuarekin dugun harremana sakontzera gonbidatzen gaitu, bai otoitzean, bai eguneroko bizitzan, «ahots hura entzunez» eta gogoratuz: «Espiritu Santurik gabe, Jainkoa urruna suertatzen da, Kristok iraganean dirau, Ebanjelioa letra hila da, Eliza erakunde soila da eta misioa propaganda da. Baina Espiritu Santuarekin, kosmosa goratu eta kexu da Erreinuaren erditzean, Kristo berpiztua gurekin dago, Ebanjelioa bizi-boterea da, Elizak komunio trinitarioa esan nahi du eta misioa Mendekoste berri bat da»².

¹ «Espirituaren fruitua, berriz, hau da: maitasuna, poza, bakea, pazientzia,... » (Ga 5, 22)

² IGNACIO IV HAZIN, Antiokiako Eliza Greko-Ortodoxoaren Patriarka, Elizen Kontseilu Ekumenikoa, Uppsala 1968.

«Aitak ni bidali nauen bezala, nik zuek bidaltzen zaituztet». Eta haien gainera arnasa botaz, esan zien: «Hartzazue Espiritu Santua».

Krisi existenzial bete-betean dagoen nerabea da Andres: bizitzaren zentzuari buruzko zalantzak, etorkizunaren beldurra eta hauskortasun sentsazioa mendi gaindiezinak iruditzen zaizkio, eta desanimatua eta zorigaiztokoa sentitzen da askotan. Chiara Lubichekin hitz egitea proposatu dio norbaitek. Berarekin hitz egin baino lehentxeago, Andresek "Espiritu Santu" esaten entzun dio ahopeka, eta Chiara otoitz egiten ari dela ohartu da.

Harekin hizketan ari denean, sakon ulertua sentitzen da, den bezala entzuna. Eta bakea berreskuratzen du, ez bere arazoak bat-batean desagertu direlako, baizik eta orain badagoelako norbait konpartitu ahal izateko.

«Chiararengandik laguntza zehatz bat jasotzeaz gain -aitortzen du urte batzuk geroago- estilo bat ere ikasi nuen: sufritzen duenarengandik hurbil egotea fintasunez eta ulermenez, epaitu gabe, Jesusek egingo lukeen bezala».

Hori Espiritu Santuak bakarrik egin dezake, onartzen badugu eta gugan eragiten uzten badiogu.

Claudio Cianfaglioni eta Bizi-Hitzako taldea